

UDALAREN OSOKO BILKURA

Bilkuraren akta

Ez-ohiko saioa, Udalaren antolaketa eta funtzionamendua zehaztekoa. AJAren 38. artikulua.
Data: 2019ko uztailaren 8a, asteazkena.

Akta hau onesteko 2019ko irailaren 11ko saioan formulatutako oharra jasotzen ditu.

Oyón-Oiongo udaletxeko bilkuren aretoan, adierazitako eguneko 20:00etan, Eduardo Terroba Cabezón alkate-udalburu jauna bilkuraren buru dela, honako zinegotzi jaun-andre hauek elkartu dira Udalbatzaren osoko bilkura egiteko (zerrenda alfabetikoki egin da): Aitor Beloqui Urrunzaga, Borja Duque Sáenz, Idoia Eslava Guillerna, Hilario Fernández Ruiz, Manuel Gamarra López-Brea, Eduardo Inclán Gil, Daniel Salvador Adán, José Antonio Tarragona Elejalde, Concepción Villanueva Gutiérrez eta José Manuel Villanueva Gutiérrez.

Bilkura eratu den unean bertan ez zeuden zinegotziak: inor ez.

Alfredo S. Sastre de A. idazkari titularra da bilkurako idazkaria.

Alkate-udalburu jaunak deitu du bilkura, alde aurretik eta arauzko publikizitatearekin. Honako hau da

Gai-zerrenda

- 1) Zinegotziak bilkuren aretoan kokatzeko eta udal-talde politikoak eratzeko agindua.
- 2) Osoko bilkuren maiztasunaren erregimena.
- 3) Osoko bilkurak grabatzea.
- 4) Kontu batzorde berezia osatzea.
- 5) Informazio eta Irizpen Batzorde Iraunkorrak sortzea eta osatzea.
- 6) Bozera maileen Batzordea sortzea, osatzea eta arautzea.
- 7) Pertsonak hautatzeko hitzarmenak hartzeko prozedura onestea.
- 8) Udalerriaz gaindiko erakundeetarako udal-ordezkariek aukeratzea.
- 9) Arabako Errioxako Kuadrillan udal-ordezkariek aukeratzea.
- 10) Udalbatzaren kontratazio-mahaia eratzea, kontratazio-organo gisa.

Udalbatzako kideen Estatutua

- 11) Bateria ezintasun eta ekintzei eta ondare-ondasun eta -eskubideei buruzko adierazpenak argitaratzea.
- 12) Mozioak izapidetzeko irizpideak onestea.
- 13) Kide anitzeko organoen bilkuretarako bertaratzeko ordainketa jasotzea.
- 14) Sortutako gastuengatik kalte-ordaina. Ordezkaritza-funtzioak gauzatzeko nahitaezko epea.
- 15) Talde politikoei baliabideak ematea.
- 16) Alkateorde eta izendapenei eta beste antolaketa auziei buruzko alkatezaren ebazpenak.
- 17) Udalbatzako kideei arduraldi partzialerako erregimena aplikatzea.

Bilkuraren izaerarekin eta eguneko aztergaien zerrendarekin bat etorriz, eta gaiak jorratu eta bozkatu ostean, honako erabaki hauek hartu dira.

1. Zinegotziak bilkuren aretoan kokatzeko eta udal-talde politikoak eratzeko agindua.

Ebazpena egin baino lehen eta Toki Administrazioen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduari (AJA, aurrerantzean) buruzko azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 89. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, alkateak taldeak non kokatzen diren erabaki du, bozera maileak behin entzunda. Alkateak erabakitako ordena hau da: bilkuren aretoan mahaiaren ekialdetik hasita, EH Bildu Oion alderdiko zinegotziak, ondoren, PSE-EE PSOEk zinegotziak, idazkaria, alkate-udalburua, EAJ-PNVko zinegotziak, ondoren PPko zinegotziak eta mahaiaren mendebaldeko ertzean, Daniel Salvador zinegotzia.

Alkate jaunaren agindupeko idazkari jaunak informatu du: AJAko 24.1 artikulua ezarritako epeen

barruan eta udal antolakuntza eta funtzionamendua erabakitze oso bilkura baino lehen, udal-talde hauek osatu dira, kide guztiek sinatuta eta bozeramaile titular eta ordezkokoak izendatuta:

- EAJ-PNV udal-taldea: Eduardo Terroba Cabezón, Conchi Villanueva Gutiérrez, Idoia Eslava Guillerna eta José Antonio Tarragona Elejalde.
 - o Bozeramaile: Eduardo Terroba Cabezón; ordezkoa: José Antonio Tarragona Elejalde.
- EH Bildu Oion udal-taldea: José Manuel Villanueva Gutiérrez eta Borja Duque Sáenz.
 - o Bozeramaile: José Manuel Villanueva Gutiérrez; ordezkoa: Borja Duque Sáenz.
- Udal-talde sozialista: Manuel Gamarra López-Brea eta Hilario Fernández Ruiz.
 - o Bozeramaile: Manuel Gamarra López-Brea; ordezkoa: Hilario Fernández Ruiz.
- Udal-talde popularra: Aitor Beloqui Unzurrunzaga eta Eduardo Inclán Gil.
 - o Bozeramaile: Aitor Beloqui Unzurrunzaga; ordezkoa: Eduardo Inclán Gil.

Daniel Salvador Adán zinegotziak ez du idatziz ezta ahoz ere adierazi talde bat osatzeko nahia, eta ez osatzeko arrazoirik ez da egiaztatu.

Villanueva Gutiérrez jaunak eskatuta, alkate jaunak Salvador jaunari eman dio hitza.

Salvador jaunak hitzari uko egin dio.

Gamarra López-Brea jauna: ezin dugu horren gainean bozkatu.

Aurrekariak:

- 1) Araudia:
 - I. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea.
 - II. Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen (ETEL, hemendik aurrera) 34. artikulua.
 - III. AJAren 23., 24., 25. eta hurrengo artikulua eta 89. artikulua.
- 2) AJAren 24.1 artikuluan eta ETELen 34. artikuluan ezarritako epeen barruan, betiere udal antolakuntza eta funtzionamendua erabakitze oso bilkura baino lehen, udal-talde hauek osatu dira, kide guztiek sinatuta eta bozeramaile titular eta ordezkokoak izendatu dira:
 - Euzko Alderdi Jeltzalea Partido Nacionalista Vasco (EAJ-PNV) udal-taldea: Eduardo Terroba Cabezón, Conchi Villanueva Gutiérrez, Idoia Eslava Guillerna eta José Antonio Tarragona Elejalde.
 - o Bozeramaile: Eduardo Terroba Cabezón; ordezkoa: José Antonio Tarragona Elejalde.
 - EH Bildu Oion udal-taldea: José Manuel Villanueva Gutiérrez eta Borja Duque Sáenz.
 - o Bozeramaile: José Manuel Villanueva Gutiérrez; ordezkoa: Borja Duque Sáenz.
 - Udal-talde sozialista (PSE-EE PSOE): Manuel Gamarra López-Brea eta Hilario Fernández Ruiz.
 - o Bozeramaile: Manuel Gamarra López-Brea; ordezkoa: Hilario Fernández Ruiz.
 - Udal-talde popularra: Aitor Beloqui Unzurrunzaga eta Eduardo Inclán Gil.
 - o Bozeramaile: Aitor Beloqui Unzurrunzaga; ordezkoa: Eduardo Inclán Gil.
 - Daniel Salvador Adán zinegotziak ez du idatziz ezta ahoz ere adierazi talde bat osatzeko nahia.

Udal-talde politikoen osaeraren, bozeramaileen izendapenaren eta Salvador jauna atxiki gabeko zinegotzi-egoeraren berri eman da, eta Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

2. Osoko bilkuren maiztasunaren erregimena eta funtzionamenduari lotutako beste arau batzuk.

Aurrekariak:

- 1) Araudia:
 - I. 7/85 Legearen 46. artikulua.
 - II. ETELen 30. artikulua.
 - III. AJAren 12. eta 78. artikulua.
 - IV. Toki Araubidearen arloko Legezko Xedapenen Testu Bategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 47. artikulutik 51.era eta 72. artikulua.

(TATB, hemendik aurrera)

2) Egindako proposamena.

Erabaki da:

- 1) Ohiko osoko bilkura publikoetarako hilabeteko maiztasuna finkatzea.
- 2) Osoko bilkuren maiztasuna finkatzea arau hauekin bat etorriko da:
 - a) Osoko bilkurak ohiko bilkura egingo du, ahal dela, hilaren bigarren asteazkenean, abuztuan izan ezik.
 - b) Aurreko asteazkenean, batzordeak bilduko dira.
 - c) Bilkura 20:00etan hasiko da.
 - d) Udalbatza berritzea dakarten udal-hauteskundeak hasi baino lehen amaituko da ohiko bilkuren tartea.
- 3) Alkatetzari ahalmena ematea bilkuraren data atzeratu edo aurreratu ahal izateko, ezustekoen edo jaiegunen eraginez. Data mugitzeko, taldeen bozeramaileei kontsultatuko zaie.

Aldeko 11 (hamaika) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Borja Duque Sáenz (EH Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP), Eduardo Inclán Gil (PP) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez atxikia).

Inclán jauna (PP): Guk ostegunetan izateko eskatu genuen, baina ez deritzogu txarto.

Villanueva jauna (EH Bildu Oion): Guk helarazi genion alkateari asteazkenean egitearen proposamena. Gustatuko litzaidake taldeetako bozeramaileek hitza hartzea.

3. Osoko bilkurak grabatzea.

Aurrekariak

- 1) Araudia:
 - I. 40/2015 Legearen 18. artikulua eta hogeita batgarren xedapen gehigarria.
 - II. AJAren 88. artikulua.
 - III. TATBren 47. artikulutik 51.era eta 72. artikulua.
- 2) EAJ-PNV eta PSE-EE-PSOE taldeen proposamena.

Salvador jauna (zinegotzi ez atxikia): Saioak kameraz graba daitezke?

Alkate jauna: Ezin diogu saioa grabatu nahi duen inori galarazi, publikoa baita.

Erabaki da:

- 1) Osoko bilkurak grabatzeko sistema bat ezartzea. Horrela, eztabaidetan zinegotzien esku-hartzeak egiaztatu ahalko dira, eta aktak idazteko laguntza moduan erabili ahalko dira grabazioak, bidezkoa balitz. Zinegotziek grabazioak eskatu ahalko dituzte, aktan idatzitakoarekin bat egiten dutela ziurtatzeko. Grabazio sistemaren helburua da istiluak ekiditea eta gaizki-ulertuak argitzea. Emaizta edozein izanda ere, grabazio ekipamendua aldatuko da.

Aldeko 11 (hamaika) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Borja Duque Sáenz (EH Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP), Eduardo Inclán Gil (PP) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez atxikia).

4. Kontuen Batzorde Berezia osatzea.

Aurrekariak:

1. Araudia:
 - I. 7/85 Legearen 20.1 e) eta 116. artikulua.
 - II. AJAren 119. c) eta 127. artikulua.
2. Zinegotziei igorritako proposamena; onetsi da.

Erabaki da:

- 1) Kontuen Batzorde Berezia eratzea, Informazio Batzorde eta Informazio eta Irizpen Batzorde Iraunkorren inguruan ezarritakoari jarraituz eratu eta osatuko dena.
- 2) Kontuen Batzorde Bereziak erakundearen ekonomia eta ogasunari buruzko gaietan Informazio Batzorde Iraunkor gisa jardungo du.

Aldeko 11 (hamaika) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Borja Duque Sáenz (EH Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzuñunzaga (PP), Eduardo Inclán Gil (PP) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez atxikia).

5. Informazio eta Irizpen Batzorde Iraunkorrak sortzea eta osatzea.

Aurrekariak:

1. Araudia:
 - I. ETELen 29.2 artikulua.
 - II. AJAren 123.1, 124.1 eta 2, 125. artikulua.
2. Zinegotziei igorritako proposamena; onetsi da.
3. Informazio eta Irizpen Batzorde Iraunkor bakoitzari dagozkion auziak.

Kultura, Turismo, Jaiak, Obrak eta Zerbitzuak Informazio Batzordea.

Horri dagozkion auziak:

- Kultura eta Jaiak: garapen kulturalako planak (kudeaketa eta ekintzak), ondare kulturala (udal-artxiboa kontserbatzea eta ustiatzea, ikerketa-lanak...), hedapen kulturalako ekintzak (erakusketak, konferentziak, hezkuntza-saioak...), udal liburutegia, zinema, turismoa sustatzea (liburuxkak, gidak, turismo-ibilbideak...), artisautza sustatzea. Herriko jaiak.
- Obrak eta Zerbitzuak: ibaiak kontrolatzea eta zaintzea (isuriak), euri-uren sarea, udal igerilekuak kontrolatzea eta mantentzea, hondakinak jasotzea eta tratatzea (etxeetakoak, industrietakoak...), beira, kartoia eta beste hondakinak jasotzea, narriatutako eremuak berreskuratzea, basoberritzea, azpiegiturak kontserbatzea eta mantentzea (argi-sistema publikoa, trafikoa ...), errepideak garbitzea, berdeguneak kontserbatzea eta mantentzea (parkeak, lorategiak, zuhaitzak eta hiri-altzariak...), nekazaritza sustatzea eta garatzea (nekazal bidegintza, udalaren landa-lursailak...), Ureztatzailen Komunitatearekin harremanetan jartzea. Arabako Errioxako Ur Partzuergoaren jardueren jakinaren gainean egotea.

Gazteria, Hezkuntza eta Kirola Informazio Batzordea.

Horri dagozkion auziak:

- Gazteen inguruko zerbitzuen berri izatea, eta mugimendu asoziatibo gazteari laguntzea.
- Hezkuntza zerbitzuen berri izatea ("Ramiro de Maeztu" Eskola Publikoa, San Bizente ikastola . Koop. S. Haur Eskola Nemo), eta haurtzararen inguruko zerbitzu eta programen berri izatea (haur-eskolak, haurtzaindegiak...).
- Kirola sustatzea (federatua, aisialdikoa eta eskoletakoa), kirolean hasteko eskolak, kirol-instalazioak kontrolatzea eta mantentzea (igerilekuak salbu). Droga-mendekotasunen prebentzioa.

Gizarte Ongizate, Euskara eta Osasun Informazio Batzordea.

Horri dagozkion auziak:

- Gizarte Ongizatea: osasun eta gizarte-ongizate zerbitzuen berri izatea, tokiko mugimendu asoziatiboa, gizarte-laguntza eta -ongizatea, emakumeentzako laguntza, hirugarren adina (etxeko laguntza, tutoretzapeko pisuak...), ezgaitasunak, gutxiengoak... Hirugarren Adinekoen Etxea, Santa Maria Elkartea, Zahar Egoitza.
- Euskara: euskara bultzatzea eta zabaltzea. Oiongo euskaltegia. Euskararen udal-mahaia (euskalduntzea).

Ekonomia, Ogasun eta Enplegu eta Hirigintza Informazio Batzordea.

Horri dagozkion auziak:

- Ekonomia eta Ogasuna: jarduera ekonomiko-finantziarioa aurrera eramatea, zerga-garapena, kontabilitate eginkizuna garatzea eta aurrekontua burutzea, inbertsio-planak diseinatzea, beste erakundeekiko jarduerak zehaztea eta finantziario partekatua, Eusko Jaurlaritzarekin, Arabako Foru Aldundiarekin eta Arabako Errioxako Kuadrillarekin lankidetzak-hitzarmenak eta finantzietak-hitzarmenak. Azpiegitura-obrak finantzatzea. Foru Planaren barruan dauden obrak eta beste inbertsio-plan batzuk kontrolatzea eta horien jakinaren gainean egotea.
- Udalbatzak onetsi beharreko aurrekontu edo aurrekontuz kanpoko kontu guztiak azterketu eta horiei buruzko txostena egitea, toki erakundeen kontabilitari buruzko araudian ezarritakoarekin bat eginez, Kontuen Batzorde berezia baita.
- Barne Erregimena eta Langileak: langileen plantillari, lanpostuen zerrendari, lanaren antolamenduari eta funtzioen izendapenari lotutako gaitan Langileen Buruzagitza Nagusiari laguntza eskaintzea. Ordainsariak eta lanorduak. Urteko enplegu publikoaren eskaintza, lanpostuetarako deialdi eta lehiaketak. Lan-poltsak sortzea. Langileak kontratatzea. Diziplinazko espedienteak. Egoera administratiboan berri ematea, hala nola langileen erretiroaren berri. Negoziazio kolektiboa. Azterketa medikoak, lan-arriskuen prebentzioa eta laneko osasuna. Dirulaguntzak eta gizarte-laguntzak. Udal-ondare kontrolatzea (inbentarioa, jabetza-tituluak, pianoak, udal-instalazioak kontrolatzea eta mantentzea – egoera-orriak, inbentariatu ezin den materialaren kontrola).
- Hirigintza eta Ingurumena: hirigintza-plangintza eta -garapen tresnak onestea, ingurumena zaintzea, hirigintza lizentziak ematea (oin berriko obrak, egokitzapen- eta zaharberritze-obrak, jarduera-lizentziak...). Hirigintza lizentzien espedienteak kontrolatzea eta horien inguruan jakinaren gainean egotea (oin berriko obrak, egokitzapen- eta zaharberritze-obrak, jarduera-lizentziak...).

Erabaki da:

- 1) Informazio eta Irizpen Batzorde Iraunkorrak sortzea onestea (hemendik aurrera, Batzordeak); 3. aurrekarian aurkeztutako auzien gaineko ahalmena izango dute.
 - I. Kultura, Turismo, Jaiak, Obrak eta Zerbitzuak Batzordea.
 - II. Gazteria, Hezkuntza eta Kirol Batzordea.
 - III. Gizarte Ongizate, Euskara eta Osasun Batzordea.
 - IV. Ekonomia, Ogasun eta Enplegu eta Hirigintza Batzordea.
- 2) Batzordeen inguruko araudi hau finkatzea:
 - I. Batzordeak eskumen erabakigarriak gabeko organoak dira. Haien funtzioa osoko bilkuran eztabaidatutako diren beren arloko gaien inguruko azterketa, datuen bilketa eta kontsulta da, erabakiak premiazkoak direnean izan ezik.
 - II. Alkatetzaren kudeaketaren berri izan behar dute, Udalbatzari dagozkion kontrol gaitasunen kalterik gabe.
 - III. Batzordeen esku dago eskaerak tratatzea eta talde politikoei bildutako informazioa besteei helaraztea, betiere Udalbatzak edo Udalbatzako kideek eskatutako informazioa badute, edo izateko baldintzetan badaude.
- 3) Batzordeen osaketa hau ezartzea:
 - I. EAJ-PNV taldea: 2 kide (boto haztatuak: 4 boto).
 - II. EH Bildu taldea: 1 kide (boto haztatuak: 2 boto).
 - III. PSE-EE-PSOE taldea: 1 kide (boto haztatuak: 2 boto).
 - IV. PP taldea: 1 kide (boto haztatuak: 2 boto).
 - V. Daniel Salvador Adán (boto haztatuak: 1 boto).
 - VI. Erabakiak hartzea beharrezkoa denean, eta bilkuraren proportzionaltasuna igortzea eta

talde guztien presentzia batzordeetan errespetatzea ezinezkoa denean, boto haztatuaren sistema erabiliko da.

- 4) Batzorde bakoitzerako atxikipean idatziz helaraziko dizkio talde bakoitzeko bozeramaileak alkatetzari, eta horren berri emango da bilkuran. Titular bakoitzeko ordezkari bat izendatu ahalko da.
- 5) Batzordeen saioetan honako arau hauek jartzea:
 - I. Batzordeen saioak maiztasuna hilerokoa izango da.
 - II. Batzordeen saioak ez dira publikoak izango, eta egun bakarrean egingo dira; ahalko balitz, osoko bilkura egingo den aurreko asteazkenean. Honako ordena hau izango dute saioek: Kultura, Turismo, Jaiak, Obrak eta Zerbitzuak Batzordea; ondoren, Gazteria, Hezkuntza eta Kirol Batzordea; ondoren, Euskara eta Osasun Batzordea; eta ondoren, Ekonomia, Ogasun eta Enplegu eta Hirigintza Batzordea.
 - III. Lehenengo Batzordearen saioa 18:30ean hasiko da lehen deialdian. Saioaren hasierarako kortesia-ordua 19:30 izango da.
 - IV. Eskatzen duen organoak saioaren data aurreratu edo atzeratu ahalko du, ezustekoen edo jaiegunen eraginez. Data mugitzeko, aurretik abisatu beharko da.
 - V. Udalbatza berritzea dakarten udal-hauteskundeak hasi baino lehen amaituko da ohiko bilkuren tartea.

Aldeko 11 (hamaika) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Borja Duque Sáenz (EH Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP), Eduardo Inclán Gil (PP) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez atxikia).

6. Bozeramaileen Batzordea sortzea, osatzea eta arautzea.

Aurrekariak:

1. Araudia:
 - I. ETELen 34.6 artikulua.
 - II. AJAren 26., 29., 82.1, 82.3, 89., 102., eta 103. artikulua.
 - III. 2015eko uztailaren 8ko bilkuran hartutako erabakia.
2. Alkatetzaren proposamena, zinegotziei igorritakoa eta onetsitakoa.

Erabaki da:

- 1) Bozeramaileen Batzordea sortzea, osatzea eta arautzea onestea, honela:
 - I. Bozeramaileen Batzordea udal-organo osagarria, kide anitzekoa eta aholku-emailea da, eta alkatetzak eta udal-talde politikoen bozeramaileek osatzen dute. Bozeramaileen Batzordeak ez du erabakirik hartuko, ezta beste udal-organoren esku zereginik jaso ere.
 - II. Bozeramaileen Batzordearen funtzioak dira:
 - o Alkatetzak igortzen dien informazioa taldekideen artean zabaltzea. Hogeita lau ordu igaro eta gero, zinegotziak batzordeari igorritako informazioari buruz jakinaren gainean daudela ulertuko da.
 - o Taldeen funtzionamenduaren eta Udalbatzako bileren parte-hartzearen inguruko taldeen eskaerak bideratzea, eta saio zehatzetan eztabaidaren erregimena adostea.
 - o Erakunde adierazpenak egitea: zorientzeko, poztasuna, kondena, kexa, sentimendua, solidaritatea eta abar adierazteko.
 - o Alkatetzak onuragarri irizten badu, osoko bilkuren eguneko aztergaien zerrenda prestatzean eta taldeen arteko harremanen inguruko eta taldeen eta alkatetzaren arteko harremanen inguruko auzien gainean laguntza eskaintzea.
 - III. Alkatetzaren esku egongo da Bozeramaileen Batzordea deitzea, eta, behintzat, hogeita lau ordu aurretik abisatu beharko da, premiazko kasuetan salbu. Ez da beharrezkoa eguneko aztergaien

- zerrenda atxikitzea.
- IV. Saioak baliozkoak izateko, kideen gehiengo osoa bertaratu beharko da lehen deialdian, eta bigarren deialdian, hamabost minutu geroago, gutxienez hiru.
 - V. Alkatetzak eska dezake Batzordearen saioetan langileak edo Udalbatzaren kideak egotea, horiek informatuta egon daitezen.
 - VI. Bozeramaileen Batzordearen saioak ez dira publikoak izango, eta soilik eztabaidatzeko balioko dute, eta hartutako erabakiek Batzordearen parte diren taldeetan izango dute eragina, baina ez hirugarrenengan.
 - VII. AJAren 109.1 artikuluan a), b), c), d), e), h) eta j) ataletan aipatutakoak jasoko dira saio bakoitzaren aktan. Aktari Batzordeko kideek edo horiei laguntzen dieten funtzionarioek idatzitako edozein dokumentu atxiki ahalko da, eragin-xedeetarako.
 - VIII. 7/85 Legearen 75.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Bozeramaileen Batzordearen saioak kide anitzeko organoen saiotzat hartuko dira. Ondorioz, arduraldi osoa edo partziala ez duten zinegotziek dirulaguntzak jaso ahalko dituzte Bozeramaileen Batzordeko saioetara joateagatik.
 - IX. Aurreikusi ez den auzi guztietan, organo osagarrien funtzionamenduaren gaineko xedapenei jarraituko zaie.

Aldeko 11 (hamaika) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Borja Duque Sáenz (EH Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzueta (PP), Eduardo Inclán Gil (PP) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez atxikia).

7. Pertsonak hautatzeko hitzarmenak hartzeko prozedura onestea.

Aurrekariak:

1. Araudia:
 - a. AJAren 103. eta 101. artikulua.
2. Zinegotziei igorritako proposamena; onetsi da.

Erabaki da:

- 1) Pertsonak hautatzeko hitzarmenak hartzeko prozedura hau onestea:

- I. Alkatetzak, taldeetako bozeramaileek edo zinegotziek proposatutako dituzte hautagaiak.
- II. Araudiak baimentzen badu, hautagai bakoitzarekin haren ordezkaria proposatu ahalko da.
- III. Ohiko bozketa bakar batean hartuko da erabaki bakoitza.
- IV. Bilkurak erabakiko du bozketa-sistema: isilpeko botazioa, izenpekoa edo eskua jasota.
- V. Bozketa egin baino lehen, erabakia hartzeko gehiengo osoa edo sinplea beharko den jakinaraziko da.
- VI. Isilpeko bozketan, kutxa erabiliko da. Eskua jasota egiten bada, hautagaitzak alkatetzak ezarritako ordenan bozkatuko dira.
- VII. Nahi den hautagaia bozkatu ahalko da, edo abstenitu.
- VIII. Behar den botoen gehiengoa lortzen duen pertsona aukeratua izango da.
- IX. Alkatearen erabakia eta zentsura-mozioak hauteskunde-legedi nagusiaren arabera izango dira.
- X. Aurreikusi ez diren auzi guztietan, AJAren 101. artikuluan ezarritakoa jarraituko da.

Aldeko 11 (hamaika) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Borja Duque Sáenz (EH Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzueta (PP), Eduardo Inclán Gil (PP) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez atxikia).

8. Udalerriaz gaindiko erakundeetarako udal-ordezkariek aukeratzea.

Aurrekariak:

- 1) Araudia:
 - a. Eskualdeei buruzko 63/1989 Foru Arauaren 15. artikulua.
 - b. Eskualdeei buruzko 1989ko azaroaren 20ko Foru Arauaren garapenean, dagokien Kuadrillako batzarkide izateko udalerrietako zinegotziak hautatzeari buruzko urtarilaren 30eko 152/90 Foru Dekretua.
- 2) Arabako Errioxako Kuadrillak egindako komunikazioa: Eskualde Batzordean Oiongo Udalaren esku dauden batzarkideak bost dira, eta banaketa hau dute: EAJ-PNVren zerrendako 2 batzarkide zinegotzi hautetsi, EH Bilduren zerrendako 1 batzarkide zinegotzi hautetsi, PSE-EE-PSOEren zerrendako 1 batzarkide zinegotzi hautetsi, PPren zerrendako 1 batzarkide zinegotzi hautetsi.
- 3) Taldeetako bozeramaile guztiek proposatutako hautagaiak: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE-PSOE) eta Eduardo Inclán Gil (PP).

Ohiko bozketa bidez erabakiko dira proposatutako hautagaiak:

Aldeko 11 (hamaika) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Borja Duque Sáenz (EH Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Belouqui Unzurrunzaga (PP), Eduardo Inclán Gil (PP) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez atxikia)

Erabaki da:

1. Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillan Oyón-Oiongo Udalaren batzarkide ordezkari hauek izendatu dira: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), eta Eduardo Inclán Gil (PP).

Aldeko 11 (hamaika) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Borja Duque Sáenz (EH Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Belouqui Unzurrunzaga (PP), Eduardo Inclán Gil (PP) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez atxikia).

9. Arabako Errioxako Kuadrillan udal-ordezkariek aukeratzea.

Aurrekariak:

1. Araudia:
 - I. 7/1985 Legearen 21. eta 22. artikulua.
 - II. AJAren 41. eta 42. artikulua.
2. Udalbatzak eskumen hauek ditu: udalerriaz gaindiko erakundeen gaineko parte-hartzeari buruzko erabakiak.
3. Horrela, Udalbatzaren esku dago hauetan ordezkariak izendatzea:
 - I. Arabako Errioxako Ur Partzuergoan.
 - II. Haurreskolak Partzuergoan.

Arabako Errioxako Ur Partzuergoa

- 1) Arabako Errioxako Ur Partzuergoaren Estatutuak (1999ko apirilaren 14ko ALHAO, 40. alea).
 1. Elkartutako tokiko erakundeen ordezkariak dagokien Udalbatzak hautatuko ditu. Udalbatzak, horrez gain, bere ustez behar diren ordezkariak izendatuko ditu, titularrek kargua

Udalbatzaren 2019-VII-8ko bilkuraren akta;

- galduz gero, gaixorik egonez gero edo bertaratu ezean ordezkatzeko.
2. Aldundiaren ordezkaria erakundeak berak hautatuko du, araudi propioaren bitartez. Aldundiak, horrez gain, bere ustez behar diren ordezkoak izendatuko ditu, aurreko zenbakian aipatutako kasuak gertatuz gero.
 3. Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillaren ordezkaria erakundeak berak hautatuko du, araudi propioaren bitartez.
 4. Horrez gain, bere ustez behar diren ordezkoak izendatuko ditu, artikulua honen lehen atalean aipatutako kasuak gertatuz gero.
 5. Kideen postuak lau urteko iraupena izango du eta amaituko da, hala badagokio, Udalbatza berritzen denean. Kasu horretan Partzuergoko ordezkariak bitarteko moduan jardungo dute Partzuergoko organo nagusiak eratu arte.
 6. Udalbatzak osatzen direnetik, hilabeteko epea dago Partzuergoaren Batzar berria eratzeko.
- 2) Proposatutako hautagaiak:
- a. EAJ-PNVko bozeramaileak proposatuta, titularra: José Antonio Tarragona Elejalde, eta, ordezkariak, ordena honetan: 1. Eduardo Terroba Cabezón, 2. Conchi Villanueva Gutiérrez eta 3. Idoia Eslava Guillerna.
 - b. EH Bildu Oion taldeko bozeramaileak proposatuta, titularra: José Manuel Villanueva Gutiérrez, eta, ordezkariak: Eduardo Terroba Cabezón.

Hautagaiak ohiko bozketaren bidez aukeratuko dira:

EAJ-PNVko bozeramaileak proposatuta, titularra: José Antonio Tarragona Elejalde, eta, ordezkariak, ordena honetan: 1. Eduardo Terroba Cabezón, 2. Conchi Villanueva Gutiérrez eta 3. Idoia Eslava Guillerna.

Botoak: 6 (sei); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Manuel Gamarra Lépez-Brea (PSE-EE PSOE) eta Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE).

EH Bildu Oion taldeko bozeramaileak proposatuta, titularra: José Manuel Villanueva Gutiérrez, eta, ordezkariak: Eduardo Terroba Cabezón.

Botoak: 2 (bi); José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion) eta Borja Duque Sáenz (EH Bildu Oion).

Beste zinegotziek, Aitor Beloqui Unzurrunzagak (PP), Eduardo Inclán Gilek (PP) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez atxikiak), ez dute bozketan parte hartu.

Erabaki da:

- 1) Arabako Errioxako Ur Partzuergoan udal-ordezkari izendatzea zinegotzi hauek:
Titularra: José Antonio Tarragona Elejalde, eta, ordezkariak, ordena honetan: 1. Eduardo Terroba Cabezón, 2. Conchi Villanueva Gutiérrez eta 3. Idoia Eslava Guillerna.

Haurreskolak Partzuergoa

Aurrekariak:

- 1) Araudia:
 - a. 7/1985 Legearen 21. eta 22. artikulua.
 - b. AJAren 38. c), 41. eta 42. artikulua.
 - c. Haurreskolak Partzuergoko Estatutuak (11.1 artikulua): Udalbarri bakoitzak bere ordezkaria izango du Batzar Nagusia eta ondoko botoak izango ditu: 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalbarriek 1 boto.
 - d. Haurreskolak Partzuergoko Estatutuak (11. artikulua): Partzuergoan barne hartutako udalbarri Udalbatzako kideen artean izendatu eta kargutik kenduko dituzte beren ordezkariak. Partzuergoaren ordezkarien iraunaldiak bat etorri beharko du Udalbatzaren

agintaldiarekin.

- 2) Ordezkarari izendatua izateko egindako bozketan botoen gehiengo sinplea lortu beharko da. Ohiko bozketa bakarraren bidez hautatuko da ordezkarari bakoitza.
- 3) EAJ-PNVko bozeramaileak egindako proposamena. Titularra: Idoia Eslava Guillerna; ordezkaria: Conchi Villanueva Gutiérrez.

EAJ-PNVko bozeramaileak egindako proposamena ohiko bozketaren bidez adostuko da. Titularra: Idoia Eslava Guillerna; ordezkaria: Conchi Villanueva Gutiérrez.

Botoak: 6 (sei); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE) eta Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE),

Beste zinegotziek, José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Borja Duque Sáenz (EH Bildu Oion), Aitor Belouqui Unzueta (PP), Eduardo Inclán Gilek (PP) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez atxikiak), ez dute bozketan parte hartu.

Erabaki da:

- 1) Haurreskolak Partzuergoan udal-ordezkarari izendatzea zinegotzi hauek:
Titularra: Idoia Eslava Guillerna; eta, ordezkaria: Conchi Villanueva Gutiérrez.

Oyón-Oiongo Udalak ordezkarari izendatutako instituzio, erakunde eta sozietate guztiei eskatuko die haien saioetara joateagatik eskubide ekonomiko edo ordainketarik egongo den adierazteko.

10. Udalbatzaren kontratazio-mahaia eratzea, kontratazio-organismo gisa.

Aurrekariak:

- 1) Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (hemendik aurrera, 9/2017 Legea) 326. artikulua, 2. Xedapen Gehigarria (7. atala) eta 16. Azken Xedapena.
- 2) Kontratazio-mahaia, laguntza tekniko espezializatutako organismo den heinean, 326. artikuluko 2. atalean deskribatutako funtzioak beteko ditu. Laburbilduta:
 - a. Baldintzak betetzeari buruzko egiaztapenak kalifikatzea eta, hala badagokio, baldintzak egiaztatzen ez dituzten hautagaiak kanpo uztea, zuzenketa-izapidea egin baino lehen.
 - b. Lizitatuzaileen proposamenak baloratzea.
 - c. Hala badagokio, eskaintza bat baxuegi gisa izendatzeko proposamena.
 - d. Kontratazio-organismoari proposatzea eskaintza onena egin duen lizitatuzailea kontratatzea.
 - e. Kontratazio-organismoak horrela erabakitzen duenean prozedura murriztuan, lehia-elkarriketan, negoziatuzko lizitazioan eta berritzeko elkarteetan hautagaiak aukeratzea.
- 3) Kontratazio araudiak honako irizpide hauek ezartzen ditu toki-erakundeetako kontratazio-mahaia osatzeko:
 - a. Kontratazio-mahaia osatzen duten kideak ezingo dira mahaia heren bat baino gehiago izan.
 - b. Udalbatzako funtzionario bat izango da idazkaria.
 - c. Aldi baterako langileak ezingo dira kontratazio-mahaiaren parte izan, eta ezingo dituzte eskaintzak baloratzeko txostenak egin.
 - d. Bitarteko funtzionario batek kontratazio-mahaia parte hartu ahalko du, soilik karrerako funtzionario kualifikaturik ez badago, eta txostenean horrela adierazten bada.
 - e. Mahaiaren osaketa dagokion kontratazio-organismoaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da.
- 4) Oyón-Oiongo Udalbatzak, 2018ko otsailaren 21ean, kontratazio-mahaia sorrera eta osaketa adostu zituen.
- 5) Alkatetzaren proposamena, zinegotziei igorritakoa eta onetsitakoa.

Erabaki da:

- 1) Bilkuraren kontratazio-mahaia kontratazio-organo gisa onestea, osaera honekin:
- I. Mahaiburu titularra: alkatea, Eduardo Terroba Cabezón. Ordezko mahaiburua: José Antonio Tarragona Elejalde, Obrak eta Zerbitzuak Batzordeko presidente zinegotzia.
- II. Idazkaritzaren ardura duen kidea – Titularra: Alfredo S. Sastre de Abajo. Idazkaritzaren ardura duen kidea – Ordezkoa: María Jesús Mansilla Delgado, Udalbatzaren karrerako funtzionarioa.
- III. Mahai-kontratazioaren idazkari titularra, Maria Jesus Mansilla Delgado, Udalbatzako karrerako funtzionarioa. Mahai-kontratazioaren ordezkari idazkari: Sara Martínez Gallego, Udalbatzako karrerako funtzionarioa.

Aldeko 9 (bederatzi) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloquei Unzurrunzaga (PP), Eduardo Inclán Gil (PP) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez atxikia).

Abstentzioak: 2 (bi); José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion) eta Borja Duque Sáenz (EH Bildu Oion).

Udalbatzako kideen Estatutua

11. Bateriaezintasun eta ekintzei eta ondare-ondasun eta -eskubideei buruzko adierazpenak argitaratzea.

Aurrekariak:

1. Araudia:
 - I. 7/1985 Legearen 75.7 artikulua.
 - II. ETELen 52. artikulua.
 - III. GGOLren 8.1 artikulua.
2. Alkatetzaren proposamena, zinegotziei igorritakoa eta onetsitakoa.

Erabaki da:

- 1) Udalaren webgunean, gardentasun atarian bateraezintasunaren eta jardueren eta ondare-ondasun eta -eskubideen gaineko adierazpenak jartzea.
- 2) Zinegotziek urteko adierazpenak aurkeztu behar dituztela badakitela adierazi dute.

Aldeko 11 (hamaika) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Borja Duque Sáenz (EH Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloquei Unzurrunzaga (PP), Eduardo Inclán Gil (PP) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez atxikia).

12. Mozioak izapidetzeko irizpideak onestea.

Aurrekariak:

- 1) Araudia:
 - I. Espainiako Konstituzioaren (EK78, hemendik aurrera), 29. artikulua.
 - II. AJAren 91.4, 97.3 eta 231.3 artikulua.
- 2) Alkatetzaren proposamena, zinegotziei igorritakoa eta hemen hitzez hitz jasotakoa:
 - I. Mozioak izapidetzeko irizpideak onestea.
 - a. Mozioak aurreko hilabeteko azken asteazkena baino lehen aurkeztu beharko dira, Udalbatzaren ohiko oso bilkuraren eguneko aztergaien zerrendan sartzeko.
 - b. Mozioa aurkeztu duen pertsonak edo taldearen bozeramaileak beste bozeramaileei igorriko die posta elektronikoko bidez.
 - c. Zinegotziek eta talde politikoek soilik dute eskubidea mozioak, proposamenak, irizpideen

- gaineko boto zehatzak edo zuzenketak eta galde-eskeak bilkuran zehar egiteko.
- d. Mozioak ohiko osoko bilkuraren aurreko Batzordeen ohiko bilkuran adostuko dira. Horrela, mozioak negoziatzeko, zuzentzeko eta adosten saiatzeko epea ez da astebete baino gutxiagokoa izango.
- II. Udalbatza auzo-elkarteek eta publikoak osoko bilkuretan parte hartzeari buruzko araudiaren jakinaren gainean egotea:
 - a. Osoko bilkuretan auzo-elkarteen parte-hartzeak AJAren 228. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriko dira.
 - b. Alkatetzaren esku dago osoko bilkuraren amaieran publikoak galde-eskeak egiteko txanda finkatzea.
 - c. Udal-jarduerako auzo-eskaera edo -proposamenak AJAren 231. artikuluan adierazitakoari jarraituz egingo dira.

Inclán jauna (PP): Hamalau egun dira, eta ez da denbora luzea...

Alkate jauna: Ohiko osoko bilkuran onetsi ahal izateko epe horren barruan adostean datza, eta, horrela, mozioak izapidetzea ez da atzeratuko.

Villanueva jauna (EH Bildu Oion): I puntuko b atala kentzea eta mozioak idazkaritzatik igor daitezela eskatzen dut.

Erabaki da:

- 1) Mozioak izapidetzeko irizpideak onestea:
 - a. Mozioak aurreko hilabeteko azken asteazkena baino lehen aurkeztu beharko dira, Udalbatzaren ohiko oso bilkuraren eguneko aztergaien zerrendan sartzeko.
 - b. Zinegotziek eta talde politikoek soilik dute eskubidea mozioak, proposamenak, irizpideen gaineko boto zehatzak edo zuzenketak eta galde-eskeak bilkuran zehar egiteko.
 - c. Mozioak ohiko osoko bilkuraren aurreko Batzordeen ohiko bilkuran adostuko dira. Horrela, mozioak negoziatzeko, zuzentzeko eta adosten saiatzeko epea ez da astebete baino gutxiagokoa izango.
- 2) Udalbatza auzo-elkarteek eta publikoak osoko bilkuretan parte hartzeari buruzko araudiaren jakinaren gainean egotea:
 - a. Osoko bilkuretan auzo-elkarteen parte-hartzeak AJAren 228. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriko dira.
 - b. Alkatetzaren esku dago Osoko Bilkuraren amaieran publikoak galde-eskeak egiteko txanda finkatzea.
 - c. Udal-jarduerako auzo-eskaera edo -proposamenak AJAren 231. artikuluan adierazitakoari jarraituz egingo dira.

Aldeko 11 (hamaika) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Borja Duque Sáenz (EH Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzuurrungaga (PP), Eduardo Inclán Gil (PP) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez atxikia).

13. Kide anitzeko organoen bilkuretara bertaratzeagatik ordainketa jasotzea.

Aurrekariak:

- 1) Araudia:
 - I. 7/1985 Legearen 75. artikulua (3., 4. eta 6. atalak).
 - II. ETELen 32.4 artikulua.
 - III. TATBren 7.2 artikulua.
 - IV. AJAren 12., 41. eta 42. artikulua.
- 2) Alkatetzaren proposamena, zinegotziei igorritakoa eta onetsitakoa.

Villanueva jauna (EH Bildu Oion): proposamenak Batzorde bakoitzeko 30 eurotik 50 eurorako igoera dakar, eta, nire ustez, gehiegizkoa da. Ez dut ulertzen zergatik Batzordeetako presidentek gehiago kobratzen duten. Baina, bueno, EAJren joerarekin bat egiten du, politikoen soldata igotzekoarekin.

Alkate jauna: 2007-2011 legegintzaldian bilkurako 60 euro kobratzen ziren...

Erabaki da:

- 1) Kide anitzeko organoen bilkuretara bertaratzeagatik ordainketa jasotzea:
 - I. Arduraldi eskusiboa edo partziala ez duten zinegotziek ordainketak jasoko dituzte bilkuretara joateagatik. Osagai finko batek eta aldakor batek osatzen dute ordainketa. Osagai finkoa berdina da udal-ordezkarik guztientzat, eta horren bidez kide anitzeko organoen bilkuretara edo beren karguaren inguruko jardueretara bertaratzeagatik ordainduko zaie. Osagai aldakorren bidez, ordezkari-tza-karguaren erantzukizunarekin erlazioatutako funtzioak ordainduko dira. Zenbatekoak hauek dira:
 - a) Osoko bilkurara joateagatik zenbateko finkoa: 50 euro.
 - b) Informazio Batzordeen ohiko saioretara joateagatik zenbateko finkoa: 35 euro.
 - c) Batzordearen presidente izateagatik zenbateko aldakorra: 25 euro.
 - d) Bozera-mailen Batzordearen saioretara joateagatik zenbateko finkoa: 25 euro.
- 2) Bilkuretara ez joateak zenbatekoa jasotzeko eskubidea galtzea dakar. Bertaratzea justifikazio-partea sinatzean egiaztatuko da.
- 3) Ordainketaren likidazioa eta sortzapena sei hilez behin egingo da. Interesdunaren banku-kontuan egingo dira ordainketak. Interesduna hautatutako banku-kontuko titularretako bat izango da.
- 4) Interesdunak eskatuko balu, ordainketak udal-taldearen banku-kontuan jaso ahalko dira.
- 5) Hitzarmen honi eraginkortasuna ematea erabakia hartu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, atzera-eraginik izan gabe, eta udal-agintaldia amaitzen den egunera arte.
- 6) Hitzarmen honek 2019ko Aurrekontuak Burutzeko Udal Arauaren (hemendik aurrera, ABUA 2019) III kapituluko 27. artikulua aldatzea dakar. Kalte-ordainen erregimena Udalbatzak alda dezake.
- 7) Gorago emandako kontzeptuengatik ordaindutako zenbateko guztiak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren atxikipearen menpe egongo dira.
- 8) ALHAOn, probintzia mailan gehien irakurtzen den aldizkarian, eta udaleko iragarki-taulan ipintzea, jendaurrean egon dadin.
- 9) Udalak ordezkariak izendatutako instituzio, erakunde eta sozietate guztiei eskatuko die haien saioretara joateagatik eskubide ekonomiko edo ordainketarik egongo den adierazteko.

Aldeko 8 (zortzi) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP) eta Eduardo Inclán Gil (PP).

Kontrako 3 (hiru) boto: José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Borja Duque Sáenz (EH Bildu Oion), eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez atxikia).

14. Sortutako gastuengatik kalte-ordaina. Ordezkaritza-funtzioak gauzatzeko nahitaezko epea.

Aurrekariak:

- 1) Araudia:
 - I. 7/1985 Legearen 75. artikulua (3., 4. eta 6. atalak).
 - II. ETELen 32. artikulua.
 - III. AJAren 41. eta 42. artikulua.
 - IV. Zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzko otsailaren 2ko 16/1993 Dekretua, 1995eko abenduaren 19ko 515/1995 Dekretuaren, 2000ko abenduaren 19ko 267/2000 Dekretuaren eta 2006ko ekainaren 13ko 121/2006 Dekretuaren bidez egindako aldaketekin.
 - V. Langileen Estatutuaren 37.3 d artikulua eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko

Estatutuaren 48. j artikulua.

2) Alkatetzaren proposamena, zinegotziei igorritakoa eta onetsitakoa.

Erabaki da:

- 1) Beren funtzioak gauzatzeagatik sortutako gastuengatik (bidaia-gastuak, leku-aldatzea eta mantenua) ordainketak jasotzeko eskubidea dute, betiere alkatetzak baimendu baditu, eraginkorrak badira, benetan gauzatu badira eta dokumentu bidez egiaztatu badira.
- 2) Enplegatu publikoek beren zerbitzua egitearen ondoriozko gastuengatik kalte-ordainak jasotzeko eskubidea izatea, eskubide hori arautzea eta zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzko otsailaren 2ko 16/1993 Dekretua aplikatzea (1995eko abenduaren 19ko 515/1995 Dekretuaren, 2000ko abenduaren 19ko 267/2000 Dekretuaren eta 2006ko ekainaren 13ko 121/2006 Dekretuaren bidez egindako aldaketekin). Salbuespena: ibilgailu pribatuen erabileraren kalte-ordaina 0,33 euro/km da.
- 3) Zinegotzien istripu-polizaren harpidetza mantendu. Onuradunak zinegotziak dira. Polizaren prima 1.328,24 € da.
- 4) Oyón-Oioneko zinegotzi guztien funtzio publikoak gauzatzeko kide aantzeko organoetan parte hartzea, ordezkaritza jardueretako denbora, eskuordetutako eginkizunetarako edo beste instituzio edo erakundeekin batzarretara joateko eskaintako denbora, bai eta beren karguaren inguruko beste edozein jardueretan ere erabilitako denbora ezinbestekotzat jotzen da. Kontuan hartu behar dira, hala badagokio, aipatutako eskubideei dagokienez lan-arloko legerian eta zerbitzu publikoan aurreikus zitezkeen xedapenak. Inola ere denbora hori 90 (berrogeita hamar) ordu hiru hilabete bakoitzeko gutxiagokoa izango da.
- 5) Ordainketaren likidazioa eta sortzapena hiru hilez behin egingo da. Interesdunaren banku-kontuan egingo dira ordainketak. Interesduna hautatutako banku-kontuko titularretako bat izango da.
- 6) Interesdunak eskatuko balu, ordainketak udal-taldearen banku-kontuan jaso ahalko dira.
- 7) Hitzarmen honi eraginkortasuna ematea erabakia hartu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, atzera-eraginik izan gabe, eta udal-agintaldia amaitzen den egunera arte.
- 8) Hitzarmen honek 2019ko Aurrekontuak Burutzeko Udal Arauaren (hemendik aurrera, ABUA 2019) III kapituluko 27. artikulua aldatzea dakar. Kalte-ordainen erregimena Udalbatzak alda dezake.
- 9) Gorago emandako kontzeptuengatik ordaindutako zenbateko guztiak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren atxikipenaren menpe egongo dira.
- 10) ALHAOn, probintzia mailan gehien irakurtzen den aldizkarian, eta udaleko iragarki-taulan ipintzea, jendaurrean egon dadin.
- 11) Udalak ordezkariak izendatutako instituzio, erakunde eta sozietate guztiei eskatuko die haien saioretara joateagatik eskubide ekonomiko edo ordainketarik egongo den adieraztekoko.

Aldeko 8 (zortzi) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzueta (PP) eta Eduardo Inclán Gil (PP).

Abstentzioak: 3 (hiru); José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Borja Duque Sáenz (EH Bildu Oion), eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez atxikia).

15. Talde politikoei baliabideak ematea.

Aurrekariak:

- 1) Araudia:
 - a. 7/1985 Legearen 73. artikulua.
 - b. AJAren 17., 18., 27. eta 28. artikulua.
- 2) Alkatetzaren proposamena, zinegotziei igorritakoa eta onetsitakoa.

Villanueva jauna (EH Bildu Oion): Proposamenak ehuneko 100eko areagotzea dakar 2015-2019ko legegintzaldiarekin alderatuz, eta ulertzen dut lau urteetarako izango dela. Gehiegizkoa, lotsagarria. Alkate jauna: 2007-2011 legegintzaldian bilkurako 60 euro kobratzen ziren...

Erabaki da:

- 1) Zinegotzi bakoitzari gutunontzi pertsonal eta identifikatua ematea, paperan jaso ditzaketen gutun ofizialentzako, bai barrukoak, baita kanpokoak ere.
- 2) Udal-taldeei erabilera partekatuko bulego edo lokal hauek ematea, banaka bildu ahal izateko eta herritarren bisitak jasotzek:
 - a. Udaletxean, jendaurreko ordutegian: udaletxeko 2. solairuko gela.
 - b. Jendaurreko ordutegitik kanpo: udal-artxiboko gela (Plaza Nagusia 1 helbidean; Diputazio kaletik sartzen da).
 - c. Talde politikoei lokala erabiltzeko erregimen zehatza alkatetzak finkatuko du, Bozerailearen Batzordeak esandakoari jarraituz. Koordinazio funtzionala eta talde bakoitzaren ordezkaritza politikoa hartuko dira kontuan.
 - d. Udalaren kide anitzeko organoen bilerekin ezingo dute bat egin bilera horiek.
- 3) Oyón-Oiongo Udalean osatutako talde politikoei hilabeteko ordainketa bat esleitzea. Ordainketak osagai finko bat izango du (100 euro, guztientzat berdina) eta osagai aldakor bat (50 euro zinegotzi bakoitzagatik, talde bakoitzean dagoen zinegotzi kopuruaren arabera). Horrela, honako hauek izango dira taldeen ordainsariak:
 - a) EAJ-PNV udal-taldea: $100 + (50 \times 4) = 300$ euro hilean.
 - b) EH Bildu udal-taldea: $100 + (50 \times 2) = 200$ euro hilean.
 - c) PSE-EE-PSOE udal-taldea: $100 + (50 \times 2) = 200$ euro hilean.
 - d) PP udal-taldea: $100 + (50 \times 2) = 200$ euro hilean.
- 4) Udal-taldeen aldeko ordainketak honen arabera izango dira:
 - a. Ordainketak soilik taldearen jardura edo sustapena ordaintzeko balio izango dute (alokairuak, komunikazioak, inprimatzea, harpidetzak, informazio-aldizkaria, talde politikoak prestatutako zerbitzuei lotutako gastuak, ordezkaritza-gastuak, langileak kontratatzea...). Ezingo da diru hori Udalbatzaren zerbitzuan dauden edozein motako langileei ordaintzeko erabili, ezta ondare-aktibo finkoak izan daitezkeen ondasunak lortzeko ere.
 - b. Udal-taldeen ordainketen kontabilitate zehatza izan beharko dute, zeina 2020ko abenduaren lehen hogeiei egunetan, 2022ko abenduaren lehen hogeiei egunetan eta 2023ko apirilaren lehen hogeiei egunetan Udalbatzaren aurkeztu beharko duten; kudeaketaren berri emateko. Betebehar hori ez betetzeak ordainketak etetea dakar.
 - c. Ordainketaren likidazioa eta sortzapena sei hilez behin egingo da. Taldeen osakeraren aldaketarik egonez gero, hurrengo seihilekoan konpentsatuko da.
 - d. Bozeraileak idatziz aukeratutako banku-kontuan egingo dira ordainketak. Udal-taldeak izan behar du banku-kontuaren titularra. Taldearen bozeraileak izendatuko du funtsen arduraduna den zinegotzi bat, diruaren ardurapean egongo dena. Izendapenik ez badago, bozeraileak izango du funtsen ardura.
 - e. Aurreko atalean adierazitako kontuaren titularrari eta funtsen arduraduna izendatzeari buruzko baldintza formalak ez betetzeak seihileko sortzapena ez sortzea eta ordainketak jasotzeko eskubidea galtzea dakar, aurrekontu-ekitaldia behin bukatuta baldintzak bete ez badira.
- 5) Hitzarmen honi eraginkortasuna ematea erabakia hartu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, atzera-eraginik izan gabe, eta udal-agintaldia amaitzen den egunera arte.
- 6) Hitzarmen honek ABUA 2019ren III kapituluko 29. artikulua aldatzea dakar.
- 7) Gorago emandako kontzeptuengatik ordaindutako zenbateko guztiak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren atxikipearen menpe egongo dira.
- 8) ALHAOn, probintzia mailan gehien irakurtzen den aldizkarian, eta udaleko iragarki-taulan ipintzea, jendaurrean egon dadin.

Aldeko 8 (zortzi) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-

PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP) eta Eduardo Inclán Gil (PP).

Abstentzioak: 3 (hiru); José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Borja Duque Sáenz (EH Bildu Oion), eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez atxikia).

16. Alkateordetza izendapenei eta beste antolaketa gaiei buruzko alkatetzaren ebazpenak.

Alkate jaunak ebazpen hauen berri eman du:

Gaia: alkateordetza izendapenak

Aurrekariak:

- 1) Araudia: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 233. artikulua; indarrean dauden Toki Araubidearen Lege Xedapenen Testu Bateginaren 21. artikulua; AJAren 46. eta 47. artikulua.

Horietan oinarrituta, hau ebatzi da:

- 1) Lehen alkateorde izendatzea Conchi Villanueva Gutiérrez zinegotzia.
- 2) Bigarren alkateorde izendatzea Idoia Eslava Guillerna zinegotzia.
- 3) Hirugarren alkateorde izendatzea José Antonio Tarragona Elejalde zinegotzia.

Izendatuek kargua onartu dute.

Gaia: Udalbatzaren eskumena ez diren udal-ordezkariek izendatzea.

Aurrekariak:

- 1) Araudia: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 21.1 b) artikulua; AJAren 41.1 eta 27. artikulua.
“Alkatea Udalbatzaren presidentea da eta honako eskumen hauek ditu:
b) Udala ordezkatzea.
s) Legeek eta Estatuaren legegintzak edo autonomia erkidegoek udalerriari (eta ez beste udal-organoei) ezartzen dizkieten beste guztiak.
- 2) Alkatetzak du udal eremuko edo maila baxuko erakundeetan ordezkariek izendatzeko ahalmena.
- 3) Legeak Udalaz gaindiko erakundeetan parte hartzeari buruzko hitzarmenak aipatzen dituenean, Udalbatzari ahalmena emateak ordezkariek izendatzea dakar. Ondorioz, Legearen termino propioen kontrako interpretazioa izango litzateke. Izan ere, Udalbatzari emandako ahalmena Udalaz gaindiko erakundeetan parte hartzeko edo ez egiteko aukera da, ez burutu beharreko egintzak, behin erakunde batean parte hartuko dela erabakita.

Ebatzi da:

- 1) Oyón-Oiongo Udaleko ordezkarik titular eta ordezko hauek izendatzea, honako kide anitzeko organo hauetan:
 - Hermandad del Monte de Laguardia: José Antonio Tarragona Elejalde. Ordezkoa: Eduardo Terroba Cabezón.
 - Oyón-Oiongo Ureztatzaile Komunitatea: José Antonio Tarragona Elejalde. Ordezkoa: Eduardo Terroba Cabezón.
 - Nemo Haur Eskolako Kontseilua: Idoia Eslava Guillerna. 1. ordezkoa: Conchi Villanueva Gutiérrez, 2. ordezkoa: José Antonio Tarragona Elejalde.
 - Ardoaren Ibilbidea: José Antonio Tarragona Elejalde. Ordezkoa: Eduardo Terroba Cabezón.
 - Ramiro de Maeztu Eskola Publikoko Kontseilua: Conchi Villanueva Gutiérrez. 1. ordezkoa: Idoia Eslava Guillerna, 2. ordezkoa: José Antonio Tarragona Elejalde.

- San Bizente ikastola Kooperatiba: Idoia Eslava Guillerna. 1. ordezkoa: Conchi Villanueva Gutiérrez, 2. ordezkoa: José Antonio Tarragona Elejalde.
- Arabako Errioxako Nekazal Garapenerako Elkartea: José Antonio Tarragona Elejalde. Ordezkoa: Eduardo Terroba Cabezón.
- EUDEL Euskadiko Udalen Elkarteko batzordea: José Antonio Tarragona Elejalde. 1. ordezkoa: Eduardo Terroba Cabezón, 2. ordezkoa: Conchi Villanueva Gutiérrez, 3. ordezkoa: Idoia Eslava Guillerna.

Oyón-Oiongo Udalak ordezkariak izendatutako instituzio, erakunde eta sozietate guztiei eskatuko die haien saioetara joateagatik eskubide ekonomiko edo ordainketarik egongo den adierazteko.

Gaia: Ezkontza zibilak baimentzeko eskuordetza orokorra
Aurrekariak:

- 1) Araudia:
 - a. Kode Zibilaren 51.2 artikulua.
 - b. AJAren 43. eta 44. artikulua.

Ebatzi da:

- 1) Udalbatzako zinegotzi guztiei ezkontza zibilak baimentzeko eskuordetza orokorra esleitzea.
- 2) Ordezkariak (alkatetzak) ere ezkontza zibilak baimentzeko eskuordetza izatea.
- 3) Eskuordetza burutu ahal izateko berariaz onetsi behar izatea.

Zinegotziek eskuordetza onartu behar dute.

Gaia: Alkatetzaren kontratazio-mahai iraunkorreko kideak kontratazio-organo gisa izendatzea
Aurrekariak:

1. 9/2017 Legearen 326. artikulua, 2. Xedapen Gehigarriaren 7. atala eta 16. Azken Xedapena.
2. Kontratazio-mahaiak, laguntza tekniko espezializatuko organoa den heinean, 326. artikulua 2. atalean ezarritako funtzio hauek beteko ditu:
 - a. Baldintzak betetzeari buruzko egiaztagiria kalifikatzea eta, hala badagokio, baldintzak egiaztatzen ez dituzten hautagaiak kanpo uztea, zuzenketa-izapidea egin baino lehen.
 - b. Lizitatzailen proposamenak baloratzea.
 - c. Hala badagokio, eskaintza bat baxuegi gisa izendatzeko proposamena.
 - d. Kontratazio-organoari proposatzea eskaintza onena egin duen lizitatzaila kontratatzea.
 - e. Kontratazio-organoak horrela erabakitzen duenean prozedura murriztuan, lehia-elkarriketan, negoziazio-lizitazioan eta berritzeko elkartzean hautagaiak aukeratzea.
- 6) Kontratazio araudiak honako irizpide hauek ezartzen ditu toki-erakundeetako kontratazio-mahaia osatzeko:
 - a. Kontratazio-mahia osatzen duten kideak ezingo dira mahaiaren heren bat baino gehiago izan.
 - b. Udalbatzako funtzionario bat izango da idazkaria.
 - c. Aldi baterako langileak ezingo dira kontratazio-mahaiaren parte izan, eta ezingo dituzte eskaintzak baloratzeko txostenak egin.
 - d. Bitarteko funtzionario batek kontratazio-mahaiaren parte hartu ahalko du, soilik karrerako funtzionario kualifikaturik ez badago, eta txostenean horrela adierazten bada.
 - a. Mahaiaren osaera dagokion kontratazio-organoko kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Ebatzi da:

- 1) Alkatetzaren kontratazio-mahai kontratazio-organo gisa onestea, osaera honekin:
 - I. Presidente titularra: alkatea, Eduardo Terroba Cabezón. Ordezko presidentea: José Antonio Tarragona Elejalde, Obrak eta Zerbitzuak Batzordeko presidente zinegotzia.
 - II. Idazkaritzaren ardura duen kidea – Titularra: Alfredo S. Sastre de Abajo. Idazkaritzaren ardura duen kidea – Ordezkoa: María Jesús Mansilla Delgado, Udalbatzako karrerako funtzionarioa.

- III. Mahai-kontratazioaren idazkari titularra: María Jesús Mansilla Delgado, Udalbatzako karrerako funtzionarioa. Mahai-kontratazioaren ordezkari idazkaria: Sara Martínez Gallego, Udalbatzako karrerako funtzionarioa
- 2) Mahaiaren osaera dagokion kontratazio-organoko kontratatzailearen profilean argitaratzea.

Gaia: banku-kontuetan ordainketa materialak beren sinadurarekin egiteko eskuesleak erabakitzea.

Aurrekariak:

- 1) Estaturako gaikuntza duten funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 5.3 c) artikulua; bertan adierazten da banku-kontuetan ordainketa materialak egitea ordainketa-aginduen, esku-hartzailetzaren eta diruzaintzaren bidez baimentzen direla.
- 2) 6. Xedapen Iragankorra. Estaturako gaikuntza duten funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuan ezarritako diruzaintzaren funtzioen erregimen iragankorra.
- 3) Erreferentzia alfanumerikoa: Ogas/Claveros2019.

Ebatzi da:

- 1) Banku-kontuetan ordainketa materialak beren sinadurarekin egiteko eskuesleen osaera onestea:
Eskuesleak eta haien funtzioak:
 - 1) Alkatetza – ordainketak agintzea: Eduardo Terroba Cabezón.
 - 2) Idazkaritza – kontu-hartzailetza: Alfredo S. Sastre de Abajo.
 - 3) Diruzaintza: María Jesús Mansilla Delgado.
 - a. Banku-kontuetan ordainketa materialak beren sinadurarekin egiteko giltzainen ordezkariak hauek dira: Alkatetza – ordainketak agintzearen titularra den José Antonio Tarragona Elejalde zinegotziak ordeztuko du. Idazkaritza – kontu-hartzailetzaren titularra den Alfredo S. Sastre de Abajo jauna María Jesús Mansilla Delgado Udalbatzako funtzionario administratiboak ordeztuko du. Diruzaintzaren titularra den María Jesús Mansilla Delgado andrea Sara Martínez Gallego Udalbatzako funtzionario administratiboak ordeztuko du.
 - b. Ordezkapena automatikoa da. Ez dago banku erakundeari zertan abisatu.
 - c. Giltzainen erregimenaren osaera indarrean egongo da giltzain titullarrak edo ordezkariak beren karguetatik kendu arte. Osaera 2019ko maiatzaren 26ko hauteskundearen eta 2019ko ekainaren 15eko eratze-saioaren emaitza da.
- 2) Arabako Foru Aldundiari (Toki Administrazioari Zerbitzuari) jakinaraztea.

Gaia: Oyón-Oiongo Udaleko idazkari titularra oporrenatik, arrazoi pertsonalengatik edo beste arrazoiengatik ez dagoen kasuetarako ordezkaria izendatzeko eskaera.

Aurrekariak:

1. Estaturako gaikuntza duten funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 52.1 eta 4. artikulua.
 - I. Aipatutako Errege Dekretuaren artikuluetan aurreikusitako prozedurak jarraituz lanpostua hornitzea ezinezkoa denean, Toki Udalbatzek Autonomia Erkidegoei aldi baterako eskatu ahalko diote prestakuntza tekniko egokia duen funtzionario bat, eta, posible bada, Al azpitaldekoa dena edo unibertsitateko titulua duena izendatzeko.
 - II. Titularra aldi baterako ezgaitasun, opor, arrazoi pertsonal edo beste arrazoiengatik hilabete baino gutxiagoko epean egon ezin ez bada, Autonomiako araudiaren arabera, Toki Erakundeko funtzionario bat izendatu ahalko da, aldi baterako, udalburuak proposatuta.
2. Proposatutako funtzionarioa María Jesús Mansilla Delgado da, eta unibertsitateko titulua du (Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako lizentziatua da). Aurretik gaitu izan dute Foru Aginduen bidez:
 - Ekainaren 27ko 314/2018 Foru Agindua, 2018ko uztailaren 20tik abuztuaren 10era (biak barne).

- Irailaren 21eko 386/2018 Foru Agindua, 2018ko irailaren 17tik 21era (biak barne).
- Urriaren 9ko 405/2018 Foru Agindua, 2018ko urriaren 15etik 19ra (biak barne).

Ebatzi da:

- 1) Arabako Foru Aldundiaren Lurralde Oreko Zuzendaritzari eskatzea María Jesús Mansilla Delgado Udalbatzako karrerako funtzionarioa aldi baterako Oyón-Oiongo Udaleko idazkari izendatzeko, titularra oporreatatik, arrazoi pertsonalengatik edo beste arrazoiengatik ez dagoen kasuetarako.

Zinegotziek jakinaren gainean daudela adierazi dute eta ezkontza zibilak baimentzeko eskuordetza orokorra onartu dute.

17. Udalbatzako kideei arduraldi partzialeko erregimena aplikatzea.

Aurrekariak:

1. Araudia:
 - a. 7/85 Legearen 75. artikulua.
 - b. ETELen 32. 3 eta 4 artikulua.
 - c. ABUA 2019.
2. Arduraldi partzial edo osoa duten Udalbatzako kideen ordainsariak puntu hauek adierazitakoak izango dira, eta aurrekontu-esleipenaren bidez soilik aplikatu ahalko dira. Kide horiek Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean alta emango dute eta Udalbatza ordainketak egiteaz arduratuko da.
3. Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean emango du alta Udalbatzako arduraldi partzialeko kideak, eta Udalbatza ordainketak egiteaz arduratuko da.
4. 75.3 artikulua. Toki erakundeetako kargu publikoek arduraldi osoa izateko kopurua mugatua da, lege honen 75. artikulua ezartzen duenarekin bat eginez. Baldintza hauek jarraitu beharko ditu Udalak haren kideen arduraldi osoko erregimenari dagokionez: 3.001 eta 10.000 biztanle bitarteko udalerrietako udalek ezingo dute arduraldi osoko hiru kide baino gehiago izan.
5. 7/85 Legearen 75.1 artikulua ezartzen du Toki Erakundeetako kideek ordainketak jasoko dituztela beren karguak betetzeagatik arduraldi osoarekin denean.
6. 75.5 artikuluan aipatutakoarekin bat etorritik, Alkatetzaren ardura da erabakitzea zein kideek egingo duen lan arduraldi osoko edo partzialeko erregimenean.
7. 7/85 Legearen 75. bis. 1 artikuluari Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko 27/2013 Legeak egindako irakurketak finkatzen du Estatuaren Aurrekontu Orokorrean arabera izango dela Toki Erakundeetako kideek ordainsariengatik eta bertaratzeengatik jaso dezaketen gehiengoa.
8. 7/85 Legearen 75.2 artikuluan arabera, arduraldi partziala duten Toki Erakundeetako kideek erabilitako arduraldi-denboragatik ordainketak jasoko dituzte.
9. Ordainketa horiek ezingo dira Estatuaren Aurrekontu Orokorrean Legeetan (kasu honetan) finkatutako mugak baino handiagoak izan.
10. Alkatetzaren proposamena, zinegotziei igorritakoa eta onetsitakoa.

Salvador jauna (zinegotzi ez atxikia): Ondo iruditzen zait alkateak kobratzea. Hala ere, gustatuko litzaidake alkateak azaltzea zergatik legegintzaldi honek bi soldata behar dituen: bat alkatearentzat eta beste bat alkateordearentzat. Hirugarren alkateordeak egiten dituen funtzioak beste alkateordeek egin zitzaizkion.

Eslava andrea (EAJ-PNV): Lan arrazoiengatik ezin dugu izan beharrezkoa den arduraldia eta, beraz, uko egin dugu.

Alkate jauna: Arduraldi partzialari buruzko alkatetzaren proposamenean alkatearen soldata murriztu egin da. Aurreko legegintzaldian urteko ordainketa gordina 31.256 euro ziren eta 2019rako proposamenean 21.200 eurora (14 hilerokoetan) murriztu egin da. Gizarte Segurantzako kuota 6.875,16 euro da. Hirugarren alkateordea den zinegotziak aipatutako zereginak aurreko legegintzaldian dagoeneko betetzen

zituen, eta ez zuen horiengatik kobratzen. Ez zuen zentimo bakarra kobratzen, eta alkateak bezainbeste ordu egiten zuen lan.

Villanueva jauna (EH Bildu Oion): Duela lau urte dagoeneko esan genuen. Uste dugu zentuzkoa dela alkatea liberatua egotea eta kobratzea, baina Oyçon-Oiongo Udalean bi liberatu egotea gehiegizkoa da. Aurreko legegintzaldian ezer kobratu ez bazen, orain ez da egiteko momentua. Gogorarazi nahi dut 2011-2015 legegintzaldian ez zutela kobratu nahi izan. Aurretik datorren gaitza dela ulertzen dugu. Alkatetzari proposatzen diot alkateordeak kobratu beharko lukeela aurreko legegintzaldian finkatutako ordainketa, KPIa eguneratu dela kontuan hartuz. EAJk eta PSOEk onartuko duten proposamenarekin kontzeptu horren gastua 18.000 euro baino gehiago igoko da.

Ez da esku-hartze gehiagorik egon.

Erabaki da:

- 1) 30 lanordu astean gutxienez egin beharko ditu alkatetzaren titularrak. Urteko ordainketa gordina 21.220 euro (14 hilerokoetan ordaindua) izango da. Arduraldi partzialeko kide honek ordaindu beharreko Gizarte Segurantzaren zenbatekoa 6.875,16 euro dira. Zeregin hauek ditu:
 - I. Kultura, Turismo, Jaiak, Obrak eta Zerbitzuak Informazio Batzordearen Presidentzia.
 - II. Ordezkaritza titularra erakunde hauetan:
 - a. Hermandad del Monte de Laguardia.
 - b. Oyón-Oiongo Ureztatzaile Komunitatea.
 - c. Ardoaren Ibilbidea.
 - d. Arabako Errioxako Nekazal Garapenerako Elkartea.
 - III. Ordezko ordezkaritza erakunde hauetan:
 - a. EUDEL Euskadiko Udalen Elkarteko Batzarra.
 - IV. Alkatea ordezkatzea beharrezkoa den batzar guztietan.
- 2) Udal-kargu publikoen bateraezintasunaren gaineko araudiak eragina izango du Udalbatzako kideengan, Alkatetzaren titularrak eta hirugarren alkateordetzaren titularrak arduraldi partzialeko erregimena izatearen ondorioz.
- 3) Arduraldi partzialeko erregimenean daudenek ezingo dute kide anitzeko organoetara bertaratzeagatik ordainketarik jaso. Aitzitik, beren jarduera egiteagatik sortutako gastuengatik (bidaia-gastuak, leku-aldatzea eta mantenua) ordainketak jasotzeko eskubidea dute, baldin eta eraginkorrak badira, benetan gauzatu badira eta dokumentu bidez egiaztatu badira.
- 4) Arduraldi partzialeko erregimenean daudenek Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean emango dute alta. Udalbatzak ordainduko ditu horiei dagozkien kuotak, 1999ko apirilaren 21eko 11/1999 Legean idatzitako 7/85 Legearen 75. artikuluan aurreikusitako eduki eta norainokoarekin.
- 5) Hitzarmen honi eraginkortasuna ematea inolaz ere atzera-eraginik izan gabe 2019ko abuztuaren 1etik aurrera, udal-agintaldia amaitzen den egunera arte.
- 6) Udalbatzak ordainketen erregimena aldatzea adostu ahalko du.
- 7) ALHAOn, probintzia mailan gehien irakurtzen den aldizkarian, eta udaleko iragarki-taulan ipintzea, jendaurrean egon dadin.

Aldeko 6 (sei) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE) eta Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE).

Kontrako 3 (hiru) boto: José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Borja Duque Sáenz (EH Bildu Oion) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez atxikia).

Abstentzioak: 2 (bi); Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP) eta Eduardo Inclán Gil (PP).

Jorrazteko gai gehiagorik ez dagoenez, udalburu jaunak amaitutzat eman du bilkura 21:55ean (bilkura 20:00etan hasi zen), eta nik, idazkariak, guztiaren fede ematen dut.

Oyón-Oionen 2019ko abuztuaren 7an.
Udaleko idazkaria:

OE. Alkatea.